

hezkuntza

2026UDIR0005

Arizmendi 60. urteurrena dirulaguntza

ESKORIATZAKO UDALAREN ETA ARIZMENDI IKASTOLAREN ARTEKO HITZARMENA

BILDUTAKOAK

ALDE BATETIK, Edorta Zubizarreta Alegria, Eskoriatzako alkatea, Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkartzan, eta horretarako ahalmenarekin.

ETA BESTETIK, Laurane Zubia Balanzategui, Arizmendi ikastolaren izenean eta ordezkartzan.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna onartzen diote elkarri eta, beraz honako hau

ADIERAZTEN DUTE

2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, lehenengoa izanik, hezkuntza sustatzea izenekoa.

Lerro horren M) programa Arizmendi ikastolarentzat dirulaguntza izenduna da, eta bere helburua da Arizmendiren 60. urteurrena ospatzeko 2026. urtean egingo den Iruten krosa finantzatzeko laguntzea.

Eskoriatzako Udaleko 2026ko aurrekontuetan 1.500 €-ko dirulaguntza izenduna aurreikusten dela, 0400.471.334.56.01 partidaren kargura.

Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege orokorreko 22. artikuluan, besteak beste, jasotzen da dirulaguntza zuzentzat joko direla toki erakundeen aurrekontuetan izendun bezala aurreikusita daudenak, eta laguntzak emango direla horiek arautzen dituzten arauetan eta hitzarmenetan jasotakoaren arabera.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dute alde biek.

BALDINTZAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA.

2026ko ekitaldirako udal aurrekontuan Arizmendi ikastolaren alde dagoen dirulaguntza izenduna antolatzea, ondorengo ezohiko jarduerak sortutako gastuak finantzatzeko laguntzeko:

- Iruten krosa: 4.225 €
 - Izen ematea eta kronometrajearen kontratazioa: 1.025€



- Anbulantzia: 1.000€
- Aseguruak: 400€
- Hornikuntza anoa postuetan: 300€
- Sariak eta opariak: 500€
- Lasterkarien poltsa: 1.000€

BIGARRENA.- APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA.

Deialdi hau ondorengo arauak arautzen dute:

- Hitzarmenak.
- Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorrak.
- 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (Estatuko Boletín Oficiala: 2003-11-18).
- Azken hori garatzeko erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak.

HIRUGARRENA.- ESKORIATZAKO UDALAK EGIN BEHARREKO JARDUERAK.

Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du gehienez ere 1.500 €-ko dirulaguntza emateko, 0400.471.334.56.01 2026 aurrekontu aplikazioaren kargura, lehen baldintzan zerrendatutako jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Arizmendi ikastolak jasoko duen dirua dirulaguntza helburu horretarako gastuak ordaintzeko erabili ahal izango da bakarrik, hau da, ezingo da beste helburu batzuetarako erabili. Udalari aldeztu aurretik jakinarazita, ekintzaren bat egin gabe utzi eta horren ordez beste bat jarri ahal du. Horretarako, Udalaren oniritzia izan behar du eta proposamena eta aurrekontua batera aurkeztu beharko dira. Ekintza berriak aurrekontu handiagoa eskatzen badu, ezin izango du diru kopuru handiagoa eskatu. Aurrekontua txikiagoa bada, berriz, dirulaguntza berrikusi ahal izango da.

Ekintza edo jardueraren atalen bat bertan behera geratuz gero, ez da dirulaguntzaren zenbatekoa gutxituko baldin eta dirulaguntzaren %100a zuritzen bada.

LAUGARRENA.- HEZKUNTZA JARDUERETARAKO DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat etorri eta hamabigarren baldintzan zehaztutako justifikazio epea amaitu baino lehen egiten dena.

Diruz lagungarri izan daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu tipologia zehazteko ondorengo mugak ezartzen dira:

- Arizmendiko langileen (finkoen zein aldi baterako) zuzeneko kostuak diruz lagungarriak izango dira bakarrik langile horiek diruz lagundutako jardueran eginkizun zuzen eta funtsezkoa badute, eta betiere, kobratutako kopuru osoa ez bada 150 euro baino handiagoa eta kopuru hori ez bada jardueraren gastu osoaren % 10 baino handiagoa. Ez dira zuzeneko kostutzat hartuko, eta beraz, ez dira diruz lagunduko, jarduerarekin lotura zuzena eta funtsezkoa ez duten langileei* dagozkienak. (*Adibidez, zuzendari nagusia, kontularia, kontratazio arloan laguntza ematen duena, giza baliabideetakoak, informazio teknologietakoak, administrari laguntzailea eta abar).
- Administrazio eta antolaketa barne kostuek ez dute laguntzarik edo dirulaguntzarik izango.



- Ez dira onartuko bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzuko gastuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dutenekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago.
- Ez dira onartuko kilometraje, ibilgailuentzako erregai, telefono zerbitzu partikular edo antzeko gastuak.
- Ez dira onartuko gastu oharrak eta beste dokumentu batzuk, legezko baliodun faktura edo egiaztagiritzat jotzeko eskatzen diren arauzko baldintzak betetzen ez badituzte.

BOSGARRENA.- KULTURA JARDUERETARAKO BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN PILATZEKO AUKERA ETA FINANTZAZIO MUGAK.

Emandako dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako Udalak edota beste erakunde publiko edo pribatuak emandako dirulaguntzarekin. Hala ere, inolaz ezin izango da onartu gain finantzaziorik. Horrelakorik gertatuz gero, emandako dirulaguntza murriztu egingo da diruz lagundutako ekintzaren kostu totalaren mugara.

SEIGARRENA.- ARIZMENDI IKASTOLAREN BETEBEHARRAK.

- Diruz lagunduko den jardueraren egitasmoren edo programaren informazio zehatza aurkeztea.
- Dirulaguntza emateko arrazoia den jarduera egitea.
- Baldintzak bete direla eta jarduera egin dela justifikatzea.
- Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea, jarraipena egin ahal izateko eta Udalak emandako laguntzari buruzko erabakiak hartzeko.
- Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, horren berri ematea Udalari.
- Udalak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta jardun horiek egiterakoan eskatzen zaien informazio guztia ematea.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu baditu, Udalari jakinaraztea. Laguntza horien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta edozelan ere, funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- Zerga betebeharrak egunean izatea hitzarmena sinatu baino lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean. Horretarako, hitzarmen hau sinatzearekin, baimena ematen zaio, berariaz, Eskoriatzako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundian edo eskuduntzak dituen beste erakunde edo administrazio publikoren batean dagozkion ziurtagiriak telematikoki lortzeko, baita dirulaguntzaren azken zatia ordaindu baino lehen ere.
- Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.
- Jarduera eta ikuskizun publikoen antolatetari buruz indarrean dagoen legedia eta kirol jarduerak antolatzeko indarrean dagoen legedia betetzea, eta baita dagokion jarduera eremuari aplikatu dakioken estatuko edo erkidegoko gainerako legedia ere.
- Arizmendi ikastolak bere zerbitzua eskaintzeko kontratatzen dituen enpresetako langileek adin txikikoekin lan egin behar baldin badute, 8/2021 Legea betez, sexu delituengatik zigor aurrekaririk ez dutela egiaztatu beharko dute. Ziurtagiri horrek gehienez 6 hilabeteko antzintasuna izan beharko du.
- Ikastola joko da diruz lagundutako jardueraren antolatzailerak bakartzat, eta beraz, bera izango da erantzule zibil bakarra jarduera horren garapen normal edo anormaletik erator daitekeen ondare-erreklamazioari aurre egiteko. Edozein modutan ere, egon daitezkeen erreklamazioetatik salbuetsita geldituko da Udala.



EUSKARAREN ARLOAN

- Euskarak izango du lehentasuna diruz lagundutako jarduera garatzekoan eta horrenbestez, bi hizkuntza ofizialetan hitz egiten duten pertsonak jarriko dira ekintza horren aurkezpenetan.
- Girotze musikarik jarritz gero, euskarazko musikaren presentzia bermatuko da.
- Herritarrentzako idatzizko komunikazioak (publizitatea, egitarauak, kartelak, oharak, prezioak, ...) euskaraz izango dira eta itzulpen tresna erabiltzeko alipamena jasota izango dute.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA ARLOAN

- Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginaren 23.artikuluan ezarritakoaren arabera:
 - Proiektua edo jarduera gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, hizkuntza eta irudi inklusiboa eta ez-sexista erabili beharko da, emakumeen irudi diskriminatzaileak edo estereotipo sexistak saihestuz, eta berdintasun, presentzia orekatu, aniztasun, erantzunkidetasun eta genero-rol eta -identitate aniztasun balioak sustatuko dira.
 - Dirulaguntza gauzatu eta justifikatzeko aurkeztuko diren memoria eta txostenetan onuradunei edo erabiltzaileei eta diruz lagundutako proiektua gauzatzen duten langileei buruzko datu estatistiko guztiak jasoko dira, sexuaren eta adinaren arabera berezita, eta ehunekoetan adierazita, dirulaguntzak ze herritarrengan duen eragina jakin ahal izateko.

PREBENTZIO ARLOAN

- Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legean ezarritako neurriak betez, edari alkoholduen eta tabakoaren publizitatea, sustapena, hornidura, salmenta eta kontsumoa mugatu beharko da, bereziki adingabeei zuzendutako jarduerak direnean.

KOMUNIKAZIOAREN ARLOAN

- Jarduerak sorrarazitako dokumentazio eta inprimatutako propaganda guztietan, Udalak diruz lagundutako ekintza dela adierazi beharko da.

ZAZPIGARRENA.- ESKAERAK AURKEZTEKO MODUAK.

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsona juridikoek administrazio publikoekin harremanak bitarteko elektronikoaren bidez izateko betebeharra dute. Hori horrela, dirulaguntza hau ezin da presentzialki eskatu, eta telematikoki egin beharko da eskaera.

Eskaera telematikoki hori eguneko 24 ordutan, asteko 7 egunetan egin ahal izango da, Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoaren (www.eskoriatza.eus) "Tramiteak" atalean.



ZORTZIGARRENA.- DIRULAGUNTZA ORDAINZEKO EPEAK.

Dirulaguntza modu honetara ordainduko da:

% 60a ondorengo dokumentazioa elektronikoki aurkeztutakoan eta hitzarmen hau sinatu ondoren:

- Diruz laguntzen den jardueraren programa.
- Jarduera bakoitzaren diru sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Helburu bererako eskatutako edota jasotako beste laguntzei buruzko zinpeko aitorpena.
- Banku-kontu bat dirulaguntza ordaintzeko.
- Gizarte Segurantzarekiko, Eskoriatzako Udalarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzea (Udalak egingo du).
- Adin txikikoekin arituko diren monitoreen delitu sexualik ez dutearen ziurtagiria.

Gainerako % 40a, organo eskudunak dirulaguntzaren kitapena onartutakoan ordainduko da, hau da, diruz lagundutako jarduera erabat eta zuzen justifikatutakoan, 9. baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta.

BEDERATZIGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

Justifikatzeko modua KONTU SINPLE JUSTIFIKATU bidez izango da.

Hitzarmenaren helburu diren jarduerak amaitu eta HILABETERA, eta edozein modutan ere, urte honen azaroaren 20a baino lehen, Arizmendi ikastolak ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu elektronikoki www.eskoriatza.eus atarian.

- Eskaera orria.
- Jardueraren memoria xehatua. (II. Eranskina)
- Dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, libretoak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak eta abar).
- Diruz lagundutako jardueraren izandako sarreraren eta gastuen balantzea.
- Hasieran aurkeztutako aurrekontuari zein neurritan egokitu zaion balantzea egiaztatzeko, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko balantzeak izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.
- Ziurtagiria, diruz lagundutako jarduerarako jasotako dirulaguntzei eta gainerako sarrerei buruzkoa, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe (nork emandakoa eta zenbatekoa den jaso beharko da).
- Gastuen zerrenda sailkatua honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia (edo froga-balio baliokidea duen dokumentua), zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.

Kasu guztietan, honela justifikatuko dira gastuak:

- Jardueragatik egindako gastuen jatorrizko fakturak (ordainketa egiaztatuta) behar bezala beteta. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak, nahiz eta Udalak emandako dirulaguntza hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan.

- Fakturak, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:



- Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NANA.
 - Arizmendi ikastolak ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZa, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da.
- Gastuak justifikatzerakoan aurkeztutako fotokopietan izandako faltsukeriagatik, zehaztasun ezagatik edo akatsengatik egon daitezkeen gorabeherak zigortu egingo dira dirulaguntza kitatzerakoan.
 - Fakturen edo ordainagiriaren data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da. Exekuzio aldia baino lehenagoko data duten fakturak onartuko dira, soilik, programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaintzea beharrezkoa denean.

HAMARGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen batzordea eratzea, gutxienez alde bakoitzeko kide banak osatuko duena. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak, eta, orokorrean, etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

- Udalaren aldetik: Hezkuntza teknikaria eta Kultura zinegotzia edo berak izendatutako pertsona.
- Arizmendiren aldetik: ikastolako idazkaria edo zuzendaria.

HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENA SUNTSITZEA.

Hitzarmen hau alde biek hala adosten dutenean suntsituko da. Era berean, alderen batek baldintzetakoren bat betetzen ez duenean ere suntsitu egingo da, betiere, hilabete aurretik alde horri kontratua suntsituko dela era fede-emailean jakinarazi eta gero.

HAMABIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean eta 2026ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

HAMAIRUGARRENA.- KONFIDENTZIALITASUNA ETA DATU PERTSONALEN PROZESAMENDUA.

Eskoriatzako Udalak beharrezko neurriak hartuko ditu bere langileek hitzarmen honetan jasotakoa garatzerakoan informazio konfidentziala -eta bereziki, informazio pertsonala- erabili behar izanez gero, indarrean dagoen araudiaren arabera dagokien edozein betebeharrak bete eta araudi hori erabat errespetatu dezaten. Indarrean dagoen araudia esaten denean, bereziki, datu pertsonalak babesteko lege organikoa eta hori garatzeko erregelamendua esan nahi da.



Horretarako, langile horiek konfidentzialtasun eta sekretu profesional betebeharrari lotuta gelditzen dira eta eskuratutako informazioa hitzarmen honetan aurreikusitako helburuetarako erabiliko dute bakarrik.

HAMALAU GARRENA.- IZAERA.

Hitzarmen honen aplikaziotik, interpretaziotik, aldaketatik, ondorioetatik eta erabakietatik auziak edo eztabaidak sortuko balira, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioenaren arabera erabakiko dira.

Eta, ados daudela adierazteko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Edorta Zubizarreta Alegria
ESKORIATZAKO UDALAREN ALDETIK
ALDETIK

Laurane Zubia Balanzategui
ARIZMENDI IKASTOLAREN



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026UDIR0005-hitzarmena/hitzarmena ()